

## Fagor Industrial Hot Concepts 2019 sarien irabazlea Wanda Metropolitanon gauzatutako ostalaritza- proiektuagatik

- Estadioko ostalaritza-ekipamenduak, “Sukaldaritza Profesionaleko Proiektuak” atalean aurkeztutakoak, irabazlearen saria eman dio

Madriren, 2019ko uztailaren 5ean – Fagor Industrial, ostalaritzako, sukaldaritza kolektiboko eta garbitegiko ekipamenduetan liderrak Restauración News aldizkariak antolatutako 2019ko Hot Concepts saria irabazi du Wanda Metropolitanon egin duen ostalaritza proiektuagatik, “Sukaldaritza Profesionaleko Proiektuak” atalean.

Proiektu honen prozesua hasieratik bukaerarainokoa izan da; izan ere, hainbat gune hornitu dira: fan zona, publiko orokorarentzako barrak, vip barrak eta 15-20 pertsonarentzako vip palkoak. Helburua erabateko zerbitzuko esperientzia gastronomikoa lortzea da.

Sari-banaketa ekitaldia atzo izan zen, uztailaren 4an, Madrilgo Goya Antzokian. Gala 19:30ean hasi zen sari-banaketarekin, eta ondoren, Santuago Segurak, Jose Motak eta Florentino Fernandezek “*El sentido del humor: dos tontos y yo*” lana antzeztu zuten.

Francisco Javier Sanchezek, Fagor Industrialeko Proiektu Handietako zuzendariak, eta Mario Lopezek, Fagor Industrialeko Zuzendari Nagusiak, jaso zuten saria. **“Fagor Industrialen helburuetako bat ostalaritzaren hazkunderan ekarpena egitea da, eta ez dago modu hoberik sektore guztietara zabaltzea baino; baita kirolera ere, erabateko esperientzia lortzeko”**, gehitu zuen Mariok. **“Oso harro gaude sari hau jasotzeaz, talde handi baten eguneroko lana eta hobetzeko eta arrakastaz bezero bakoitzaren beharrei erantzuteko egindako esfortzua aitortzen dituelako”**, azpimarratu zuen Javierrek.

Gau-ekitaldia Goya Antzokiko lorategian egin zen koktelarekin, eta jarraian antolatutako festa batekin amaitu zen, eta bertan saritu guztiek euren lorpenak ospatu ahal izan zituzten.



ONNERA GROUP



**Fagor Industriali buruz**

Fagor Industrial, Mondragon kooperatibako kidea, ostalaritzarako ekipamenduetan, sukaldaritza kolektiboan eta garbitegian liderra da. 60 urtetik gorako esperientzia du, eta ostalariaren egunerokoa eta beharrak ondo ezagutzen ditu; horregatik, Fagor Industrialek marka bereko produktuen gama integrala eskaintzen du. Fagor Industrial nazioarteko ONNERA Group enpresataldeko kide da, mundu osoan 8 lantegi eta 2.000 langile baino gehiago dituen taldea.

**Informazio gehiagorako edo elkarrizketak kudeatzeko, jarri harremanetan:**

**LEWIS**

Marina Obrero / Nuria Mañá

FagorSpain@teamlewis.com

917 701 516

**ONNERA GROUP**

Together we evolve

[www.fagorindustrial.com](http://www.fagorindustrial.com)